



LUIS MARI MUJICA ▶ IDAZLEA

«Zerbaitengan sinestuz gero erosoago sentitzen naiz»

LIZARTZA ▶ 'Barne ibilerak II' eta 'Ipar Euskal Herriko toponimia II' kaleratu berri ditu irakasleak

HIZKUNTZA ▶ «Beti harritu izan nau Lizartzan nola maite eta bizi izan duten euskara», dio ▶ 6

TOLOSA ▶

Tolosaldeko neskak garaile Batel Ligaxkan

Gainerako taldeek ere emaitza onak ▶ 3

TOTI MARTINEZ DE LEZEA ▶ IDAZLEA



HITZA

«Sorginik ez zen egon haietaz hitz egin zen arte»

Ostiralean sorginei buruz ariko da hizketan Altzon ▶ 5

VILLABONA ▶

Aduna alderako irteeran hasi dituzte obrak

Saneamendu sistema ari dira egiten ▶ 6

TOLOSA ▶

Aralar, igoeratik gertuago ▶ 3



291 korrikalarik hartu dute parte herri lasterketan

LEITZA ▶ Herenegun Leitzako herri krosa bere 29. ediziora heldu zen. Guztira 291 korrikalarik hartu zuten parte, iaz baino 29 partaide gutxiago. Hala eta guztiz ere, Aurrerako antolatzaileak «pozik» azaldu ziren lasterketaren nondik norakoekin eta gazteetan kopurua jaitsi bazen ere, beteranoetan 16 pertsona gehiagok

eman zutela izena goraiatu dute. Eguraldia ere lagun izan zuten kirolariek eta jende andana hurbildu zen haiek animatzera. Guztira zazpi mailatan aritu ziren, benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, juniorrak, seniorrak eta beteranoak. Eguerdian sariak banatu zizkieten irabazleei —argazkian—. **IBON AZPILIKUETA** ▶ 7

KULTURA ▶

IÑIGO TERRADILLOS

Madrilgo Kongresuen Udalauregiak hartu zuen herenegun Espainiako Turismoaren Lehiaketako lehen edizioari sari banaketa. Gaikako CTT telebista kateak antolatutako lehiaketa honetan Tolosak hartu zuen parte onare historikoaren kontserbazioaren sailean, eta baita irabazi ere. Ekitaldian izan zen Jokin Bildarratz Tolosako alkatea saria jasotzen.

Lehiaketa honetan parte hartu zuten udalek euren herria erakutsi behar zuten ikusentzunezko baten bidez, eta ondoren, telebista kate horretako ikusleen botoekin erabakitzen zen irabazlea. Internetez, telefonoz edota SMS bidez bozkatzeko aukera izan da iragan apirilaren 6ra arte, eta azkenean bere saileko irabazlea izan da Tolosa 19.206 botorekin (1.684 telefonoz, 640 SMS bidez eta 16.882 Internetez) eta hori lehenengo egunetan beheko postuetan ibili zela; baina, pixkanaka igotzen joan eta gero, azken egunetan bigarren postuan mantendu zen, eta amaitzeko bi egun falta zirela egin zen lehen postuarekin. Tolosaren atzetik geratu dira Alba de Tormes (Gaztela eta Leon) bigarren postuan eta La Laguna (Kanaria Handia) hirugarrenean.

Saria jasotzean, herriko ondarea erreperatatzeko egiten ari diren lanengatik erabaki zutela aurkeztea lehiaketan azaldu zuen alkatea. Halaber, tolosar eta gipuzkoar guztiak eskertu zituen «saria posible egin dutenak direlako».

Tolosa, ondare historikoa hobekien zaintzen duen herria

19.206 botorekin, Espainiako Turismoaren I. Lehiaketan saritua izan da Tolosa ondarea zaintzen egindako lanagatik



Jokin Bildarratz ondare historikoaren zaintzarengatik saria jasotzen, Madril, herenegun. HITZA

JOKIN BILDARRATZ ▶ TOLOSako ALKATEA

«Urtetan egin den lanaren onarpena izan da saria»

Cristina Larrañaga Ekonomia, Turismoa eta Enplegu Garapeneren arduradunarekin batera jaso zuen Jokin Bildarratzek (Tolosa, 1963) saria ondarea hobekien kontserbatzen duen herria Tolosa izan delako, Espainiako Turismoaren I. Lehiaketan. Oso gustura agertu da Tolosako alkatea, «sari hau urteko askotan egin den lanaren onarpena delako».

Espero al zenuten sari hau jasotzea?

Lehenengo geratu garen hiru herrien artean, hau da, Alba de Tormes eta La Lagunaren artean lehia gogorra izan zen, eta azken unera arte ez genekien norik eramango zuen saria. Sari banaketa ekitaldian lehen

4 sailkatuen izenak ematean Tolosa entzun nuenean gusturaz geratu nintzen, baina irabazlea Tolosa zela esan zutenean, gauza asko pasatu zitzaizkidan burutik. Alde Zaharreko biztanleak, merkataria, komunikabideak... azken batean herritar guztiak merezi duten saria da eskuratu duguna. Denera, 19.206 botorekin irabazi du Tolosak, herritar guztiak nahiz kanpokoak asko inplikatu diren seinale.

Zer esanahi du sari honek Tolosarentzat?

Sari hau urtetan egin den lanaren nolabaiteko onarpena da. Bi elementu azpimarratu nahiko nituzte: batetik, urte-

tan, eta legealdi ezberdinetan daramagun lanaren erantzuna da, izan ere, zonalde bateko edo besteko birgaitzeak urte askotako lana izaten dira; bestetik, egun duguna tolosar gutzietan da, nolabait guztiok moldatu duguna. Mende askoko elementuak gaur eguneko beharretara moldatzea izan da gakoak: Errota, esaterako, XIV. mendeko eraikuntza bat da, wi-fi bezalako gaur eguneko teknologiek in egokitu.

Hiri baino hiriburu dirudi azkenaldian Tolosak.

Bai Gipuzkoan, bai eta Euskal Herrian ere, Tolosa erreferente bat bihurtzea nahi izan dugu beti. Horretan, 750. urteurre-

nak zeresan handia izan du, ekimen honen baitan antolatuta egin diren gauzengatik. Nolabaiteko inflexioa izan dela esan daiteke. Bestalde, azokak egiteko Tolosak beti izan du tradizioa, eta guk hori mantendu nahi izan dugu, baina gauza berriak sartuz, eguneratuz. Txuletarena, arrautzarena, informatikarena, oso azoka desberdinak dira, gazteei zuzendurikoak batzuk, helduagoei besteak... gauza berriekin moldatzea da kontua.

Zelun puntutan aurkitzen dela Tolosa esango zenuke?

Kulturaren alorrean, batik bat, beti izan du bizitza handia Tolosak, horrela ezagutu izan dugu herritarrok, eta horrela ikusi izan dute kanpokoek ere. Denboraldi lasai baten ostean, oso momentu onean, politoan gaudela esango nuke, eta horri eutsi beharra dago, eta mantendu. ◀

HEZKUNTZA ▶

Laskoraingo Batxiler eskaintza ezagutzeko bilera

Laskorain Ikastolako Batxilergoko eskaintza ezagutzeko informazio ekitaldia egingo dute Usabalen, hilaren 25ean, 17:00etan. Ikastola bertakoak ez diren gurasoei eta inguruko herrietakoei zuzendua dago, eta saioaren bukaeran ikastola ezagutzeko aukera izango dute.

HEZKUNTZA ▶

DBH 4koen gurasoen bilera, etzi, Hirukiden

Etzi, 18:30ean DBHko 4. mailako ikasleen gurasoei eskainia bilera izango da Hirukide Eskolapietako areto nagusian. Orientazio akademikoari buruz eta DBH 4 bukaturik ondoren Hirukidek duen eskaintzari buruz hitz egingo dute, besteak beste. Hirukiden ikasten ez duten gurasok ere gonbidaturik daude.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitzza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asuntzen Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

- ▶ Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitzza): 608 873016
- ▶ Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

ARRAUNA ▶

Tolosaldeko neskak garaile Gipuzkoako Batel Ligaxkan

Jubenil-senior mailakoak lehen postuan geratu ziren eta infantil-kadeteak bigarren; mutilek ere bi domina dituzte

ESTI EZEIZA

Tolosaldeko senior eta jubencil neskak 10 minutu eta 82 ehuneneko denborarekin garaile izan dira Gipuzkoako Batel Ligaxkan. Urrezko dominaren irabazleak ondorengoak izan ziren: Itziar Saizar, Idoia Arijostes, Myriam Elorza eta Maitane Garmendia. Patroi lanetan Nerea Elustondo aritu zen.

Gipuzkoako Ligaxkaren ondoren, asteburu honetan Eus-



Jubenil-senior mailako neskak irabazi eta gero. HITZA

SAILKAPENA ▶

NESKAK

Infantil-kadeteak.

1. Aita Mari	04.53,82
2. Tolosaldea	04.59,50
3. Sanpedrotarra	05.04,62
4. Orio	05.07,86
5. Hibaika	05.19,18

Jubenil-seniorrak.

1. Tolosaldea	10.00,82
2. Hondarribia	10.09,84

3. Aita Mari A.E.	10.13,92
4. Orio A.E.	10.14,60
5. P.D. Koxtape	10.17,08

MUTILAK

Infantilak.

1. Orio A.E.	04.50,68
2. Aita Mari	04.54,04
3. Tolosaldea	04.55,44
4. P.D. Koxtape	05.05,24
5. Hondarribia	05.12,64

Kadeteak.

1. Orio A.E.	06.58,44
2. Getaria	07.10,52
3. P.D. Koxtape	07.11,42
4. Tolosaldea	07.11,64
5. Hondarribia	05.12,64

Jubenilak.

1. Orio A.E.	09.12,79
2. Aita Mari A.E.	09.12,79
3. Tolosaldea	09.35,50
4. P.D. Koxtape A.E.	10.15,91

FUTBOLA ▶

0-2 galdu du Tolosak, San Pedroren aurkakoan

Partida hau galdu ondoren, 16. postuan dira tolosarrak, 30 punturekin

ERREDAKZIOA

2-0 galdu zuen larunbatean Tolosak San Pedroren aurka. Eskualdekoek ez zuten errakzionatzen jakin, eta erraz irabazi zieten sestaokoek. Partida guztian zehar bizkaitarrak izan ziren nagusi eta tolosarrek ez zuten erantzuten jakin.

Bi taldeek ere jeitsierako postuetatik urruntzea zuten helburu Las LLanas-en jokatutakoan. Lehendabiziko gola 39. minutuan sartu zuten etxekoek. Hala, 1-0ekoarekin sartu ziren aldageletara. Bigarren eta azken gola 61. minutuan etorri zen, Saule eskutik.

Asteburuko emaitzen ondoren, 16. postuan da Tolosa 30 punturekin. Santutxu bezala. Beraz, hurrengo jardunaldian irabazteko behar handia du Tolosak, mailaz jeisteko arriskuan baitago. Asteburu honetako norgehiagoka etxean jokatuko du, Amorebietaren aurka. Hauek 4. postuan dira. Sailkapen orokorrari dagokionez, lehen postuan Zalla dago, 64 punturekin. Gertutik jarraitzen dio Portugaletek, 61ekin, eta hurrengoa Beasain da, 58ekin.

Tolosa Futbol Klubeko gaitzetzeko taldeei dagokionez, asteburu lasaia izan zuten ia denek, Hirugarren Mailakoek eta Ohorezko Mailakoek bakarrik jokatuko baitzuten. Azken hauek ere kanpoan jokatuko izan. Iruña izan zuten aurkari eta 0-3 garaitzea lortu zuten.

SASKIBALOA ▶

Sestaon garaipena eskuratu ondoren, igoera postuetatik gero eta gertuago dago Tolosa-Aralar

Lau baja izan arren, 62-84ko emaitzarekin irabazi zuten eskualdeko mutilek

ERREDAKZIOA

Beldur handiarekin gerturatu ziren Tolosa Aralarko mutilak Sestaora, Kikerena eta Kaietena bajeaz gain Dele eta Llorente ere falta baitziren.

Lehen laurdena oso parekatua izan zen. Tolosarrak nahiko indartsu kantxaratu ziren, 6-13 aurreratuz laugarren minuturako. Etxekoek asko zuten jokoa eta lehendabiziko laurdeneren amaieran 8-0ko partzialarekin 21-19 aurreratu ziren. Hamar minuturen amaieran, orde, parekotasuna zen nagusi, 21-21.

Bigarren laurdenean gauzak

berdintsu hasi ziren. Deustorarrak jarri ziren aurretik, 24-23, partidaren azkeneko aldiz izango zen, orde. Oraingoan kanpotarrak izan ziren 0-8ko partziala egin zutenak eta 26-35 aurreratu ziren, alde garrantzitsua lortuz. Hortik laurdeneren amaierara arte, batzuek eta besteek saskiraketak tartekatuz zituzten. Segundo bakarraren faltan, Iñigok bederatzi metrotik hiruko saskiraketa lortu zuen, 35-44.

Hirugarren laurdeneren hasierak garrantzia berezia izaten du, eta hori gogoan zutela irten ziren tolosarrak jokora. Hala, 0-10eko partziala egin

zuten partida nahiko erabakita utziz, 35-54ekoarekin. Erritmoa berriro lasaitu egin zen eta laurdeneren amaierara 15 puntuko errenta lasaigarriarekin iritsi ziren bi taldeak, 48-63, hain zuzen.

Azken laurdenean ez zegoen ezer askorik jokoan. Tolosarrak alde mantentzea nahikoa zuten eta Sallekoko mutilek ez zuten aurkitzen tolosarren defentsa sendoa nondik zulatuz. Horrela amaitu zen partida, hasieran espero ez zen 19 puntuko tartearrekin 62-81.

Sei jardunaldi besterik ez dira geratzen liga amaitzeko eta tolosarrak lidergoan dira.

kadiko Txapelketa jokatuko dute Sestao inguruko uretan. Jardunaldi hauetan izango dira ere Tolosaldeko Arraun Klube bost batelak.

Gipuzkoako Batel Ligaxka bi egun ezberdinetan jokatuko zuten. Lehendabiziko egunean, hau da, larunbatean, «nahiko gaizki» ibili ziren eskualdeko neskak, hala ere, bederatzi segundoko aldearekin Hondarribiari gailendu zitzaizkion. Tolosaldea lehendabiziko txandean atera zen eta Hondarribia bigarrenean.

Brontzezko domina Zumaia-ko Aita Marirentzat izan zen, nahiz eta bigarren tandan hirugarren ziazogara arte Orio joan aurretik. Maila honetan, ziazoga onenaren saria Orioko Nadet Agirrek eraman zuen. Infantil-kadete mailako neskak ere ongi ibili ziren Gipuzkoako Ligaxkan, eta 10 segundoko diferentziatik bigarren geratu baitziren, Aita Marikoen atzetik.

Mutiletan, Orioko taldea nagusitu zen nabarmenki, hauek irabazteko izan ziren sail edo maila guztietan. Infantiletan eta jubentiletan, Tolosaldekoak hirugarren geratu ziren, lehendabizikoak irabazteko lau segundora, eta bigarrenekoak 22ra. Kadeteetan berriz, gutxi falta izan zitzaizkien domina eskuratzeko, baina azkenik, laugarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Hala ere, maila honetan TAKEko batek eraman zuen ziazoga onenaren saria, Iñigo Alustizak hain zuzen ere.

Igoera helburu dutela kontutun hartuz gero, datorren astean edo hemendik bi astetara matematikoki lortu daiteke. Datoren bi partidak etxean jokatuko dituzte, beraz aukera izango dute tolosarrek, euren zalegoarekin igoera ospatzeko.

Horretarako, ezinbestekoa dute datorren astean Errioxatik etorriko den Unibersidad de la Rioja taldeari irabaztea. Joaneko norgehiagokan porrota jaso zuten euren aurka eta gogo biziz dira Jimyren mutilak errebantxa jokatzeke. Norghegiagoka larunbat arratsaldeko 16:00etan izango da Usabal kiroldegian.

Baserriko produktuak banatzeko **banatzailea** behar da
Tel. 943 69 20 54

Zerbitzaria behar da Tolosako jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko
Tel.: 629 19 97 43

VILLABONA ▶ AZPIEGITURAK

Saneamenduko obrak hasi dituzte Aduna alderako irteeran

Zubimuxu ingurutik Adunarako biribilgunera arte, herriko ur beltzak jasotzeko hodi-sistema jarriko dute

IMANOL GARCIA

Villabonako ur beltzak jasoko dituen hodi-sistema jartzeko obrak hasi dituzte egunotan Aduna alderako irteeran. Foru Aldundiak du obrak egitearen ardura. Oraingo fase honetan, Zubimuxu ingurutik Adunarako biribilgunera arteko obrak egingo dituzte. Hodi-sistema funtzionatzen hasteko Adunan araztegia egin behar da aurretik, bertan tratatuko baitira ur beltzak gero Oria ibaira ixurizteko.

Obra hauek Villabonarako sarreran eragozpenak sortuko ditu, lurra zulatu behar baitute hodiak sartu ahalizateko. Egun hauetan zenbait lagin egiten ari badira ere, laster Burdinezko Zubiaren ondoko biribilgu-



Zenbait lagin egiten ari ziren atzo herriaren irteeran. I. GARCIA

ne inguruan hasiko dira zulatzeko lanak. Horrela, biribilgunehorretatik herrira sartzeko bide bakarra egongo da erabil-

garri eta semaforo batek kudeatuko du trafikoa. Aldaketa hauek ziurrenik bihurtik aurrera jarriko dituzte martxan.

VILLABONA ▶ PING PONG

Olaederra K.E. bakarrik lidergoan Guretalde.net-i irabazi ondoren

ERREDAKZIOA

Guretalde.net talde bizkaitarrari irabazi ondoren, Olaederra K.E. ping pong taldea bera bakarrik dago lidergoan Liga Autonomikoan. Talde bizkaitarrek berdin dute zegoen lehen postuan eta bien arteko norgehiagokan billabonatarak gailendu ziren. Horrela, hiru jardunaldi falta direnean

liga amaitzeko, matematikoki lehen lau postuetan geldituko da eta, beraz, igoera kanporaketako lekua ziurra du. Bigarren mailara bi talde igoko dira.

Olaederra K.E. taldea Txema Armentia, Alberto Etxeberria, Ion Caminos eta Iker Mugerza jokalariek osatu zuten. Armentiak, Etxeberriak eta Iker Mugerzak beren bakarkako partidak irabazi zuten. Norgehiago-

ka kontrolpean, bi gazteek, Ion Caminosek eta Iker Mugerzak, jokatu zuten binakakoa, eskarmentua hartzen joateko. Joku ona erakutsi arren ez zuten irabazi. Azken partida Etxeberriak bereganatu zuen eta horrela markagailu orokorrean 4-1ekoa lortu zuten. Hurrengo norgehiagoka Club Universidad Deusto Artxandakoren aurka izango dute.

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA

Ahozkotasuna lantzen, oporren bueltan



Bi ikasle bikote irakurleen saioan. I. GARCIA

I. GARCIA

Aste Santuko oporren ondoren egokitzapen ludikoa egiteko, euskararen ahozko erabilera lantzeko eta hileren 2an Haur Liburuaren Eguna izan zelako, hainbat ekitaldi egiten ari dira Fleming eskolan, Euskal Girotze Egunen baitan. Ikasleen arteko ekintza trukaketa, irakasleen ipuin kontaketa, bideo saioak, bikote irakurleak eta euskal webguneren ezagupena dira atzo eta gaur egiten ari diren ekitaldi horiek.

Hain zuzen, atzokoan artean bikote irakurleena egin zuten. Lehen Hezkuntzako bi ikasle (bata 1., 2. eta 3. mailakoa eta bestea 4., 5. eta 6. mailakoa) elkartu ziren eta beraiek adostutako txoko batera joan. Bertan, batak besteari ipuin bat irakurtzen zion. Eskolan giro berezia sortu zen egitasmo horrekin: pasilloetan, eskaileretan, jolaslekuan, kiroldegian... edonon bi ikasle aurkitzea posible zen, bakoitza bere liburuarekin, ondokoari ipuina irakurtzen edo besteak zioena entzuten.

VILLABONA ▶

Behar-Zanak 13-8 irabazi zion Baigorriari

Behar-Zanako boskoteak menderatu zuen Baigorriko Zaharrer Segi taldea 13-8 henernegun jokaturako Euskal Herriko Errebote Txapelketako partidari. Behar-Zanaren aldetik Sergio Sanchez, Xabier Mitxelena, Egoitz Bengoetxea, Aratz Luisa eta Jokin Altuna izan ziren jokalariek.

ANOETA ▶

Podologoaren bisita izango dute Alkartasunakoek

Podologoaren bisita jasoko dute Alkartasuna biltokian bihar, elkartetik bertatik adierazi dutenez. Zerbitzua jasotzeko interesa duten jubituek 14:30etik aurrera izango dute horretarako aukera. Ohi bezala, Naiara Ortega podologo izango da kontsulta emango duena.

DENOK

apirilaren 4tik 22ra

SINATZERA!

PROZESUAREN ETA HAUTESKUNDE DEMOKRATIKOEN ALDE

HERRIETAKO NOTARITZETAN UDALETXETAKO IDAZKARITZETAN

badator
euskal herri berria



www.euskalherriberria.info

ALTZO ▶ KULTURA

Toti Martinez de Lezea sorginei buruz ariko da ostiralean

Bihar Enkarni Genuaren txotxongilo taldearen saioa izango da, eta hurrengo astean, motibazioari buruzko hitzaldia

NEREA URBIZU

Altzoko Udalak kulturarekin lotutako hainbat ekitaldi antolatu ditu hurrengo egunetarako. Lehen eguna haurrei zuzendutakoa izango da, txotxongilo emanaldi batekin; bigarrenik, gaztekeraz izango den solasaldi bat, idazteaz bizi den Toti Martinez de Lezearekin, eta bukatzeko, hilaren 25ean moti-

batzearen garrantziaz hitz egingo dute.

Haurrentzako aproposa den Enkarni Genuaren saioa 17:00etan izango da bihar, Lizarbeko ezker aldeko gelan. Honetan, zenbait galderei erantzuna eman nahirik, Xabi detektibe egin eta ikerketa bat egiten hasiko da txotxongilo taldearekin batera.

Toti Martinez de Lezea idaz-

lea sorginez ariko da ostiralean, 18:30etik aurrera. Gaztekeraz zuzenduko da, «hainbat datu eman behar baititu», eta bera gaztekeraz dago ohitua-goa hitzaldi hauek egiten.

Nor bere burua motibatzearen garrantziari helduko diote hilaren 25ean, aurretik finkatutako xedeei begira motibazioari eusteko gaitasuna garatzeko helburuarekin.

TOTI MARTINEZ DE LEZEA ▶ IDAZLEA

«Ez zen inoiz sorginik egon, haietaz hitz egiten hasi izan zen arte»

Historia da gehienbat jorratu duena idazle honek (Gasteiz, 1949). Larrabetzun bizi da aspaldi, eta Kukubiltxo antzerki taldea sortu zuen, besteak beste. 17 urte inguru zituela euskara ikasten Alkizan izan zen. Ostiralean Altzon ariko da aspaldi lantzen hasi zen gaiaz solasean: sorginez, alegia.

Sorginak: asko al ziren?

Bai, baziren batzuk. Baina ez ziren guk buruan dugun sorgin hori bezala: itsusiak, gorputzak jaten zituztenak... Ez zituzten sorginkeriak egiten.

Orduan zer?

Pentsatu behar da zergatik hiltzen zituzten sorginak: boterea zen; Eliza eta gizartea, hain zuzen. Garai haietan, 1610 urte inguruan, gerra asko zeuden, miseriak, gosea... eta botereak jendea nahastu, distraitu egin nahi zuen, erratzaren gainean hegan joaten zen emakumea zegoela sinetsiaraziz. Erromatarren garaian ogia eta zirkoa eskaintzen zuten. Aldiz, Errenazimenduan sorgin ehiza.

Zergatik hauen aurka?

Emakume eta gizon hauek kristautasunaren aurreko sinismen paganoa mantentzen zuten oraindik eta kristautasuna inposatzen ari zen erlijio berria zen. Gogoratu, lurralde hauek ez zituztela erromata-

rrek konkistatu eta paganoen erlijioak denbora gehiago iraun zuen. Nolabaiteko mehatxua ziren gizartearentzat. Kutsu erlijiosoa dago atzean. Horrez gain, estatuek ezberdintasun politikoak, hizkuntzarena eta ohiturekin bukatu nahi zuten. Gizarteari ez zitzaion interesatzen horrelako jenderik: sasi-medikuak ziren, sasi-jakintsuak... Medikuen konpetentzia izatera ere iritsi ziren. Gehienbat, gainera, baserriar kutsuan zeudenak erasotzen zituzten gehiago.

Zertan sinesten zuten haiek?

Beti esan da Euskal Herria matriarkala izan zela, ama jaingo batean sinesten zuten, lurran beran, Amalurren edota Lur amarengan, Marirengan. Meza batzuk, adibidez, kobazuloen aurrean egiten zituzten, eta adibidez ekaitza zegoenean, Mari haiek in haserretu zelako uste zuten.

Zer ziren sorginak, beraz?

Sinesmen oso zaharren, ohituraren, eta besteen artean euskararen transmisoreak izan ziren: gehienbat emakumeak ziren. Transmisio horren atzetik ibili ziren boteretsuak. Berez, ez zen inoiz sorginik egon, haietaz hitz egiten hasi izan zen arte.

Zinekin bahitzen zituen?

EGITARAUA ▶

Hauek dira izango diren ekitaldiak hiru egunetan zehar: txotxongilo emanaldia, solasaldia eta hitzaldia.

BIHAR

17:00. Zergatik bizi da Txanogorritxoren amona basoan?. Enkarni Genuaren txotxongilo taldearen antzerkia, Lizarbeko ezker aldeko gelan.

APIRILAK 20, OSTIRALA

18:30. Toti Martinez de Lezea idazlearekin: *Charlando con... Toti.* Asko landu duen gaiaz, sorginei buruz ariko da.

APIRILAK 25, ASTEAZKENA

17:00. Hitzaldia, *nor bere burua motibatzearen garrantzia.* Lizarbeko ezker aldeko gelan izango da.

ALEGIA ▶

Gaur goizean, gosari osasuntsua San Juan eskolan

Gaur 09:30etik aurrera Alegiko San Juan eskolako 8 eta 12 urte bitarteko 62 ikaslek gosari osasuntsu bat izango dute. Bihotz Bizi elkarteak eta Euskal Okindegi Federazioak antolatu dute, eta hainbat ikastetxetan izan dira dagoeneko. Aurtengoa 7. edizioa izango da Gipuzkoan. Honekin, gaizki elikatzearen arazoak eta ongi gosaltzearen garrantzia azpimarratu nahi dute.

IKAZTEGIETA ▶

Elikadura osasuntsuaz ariko dira etzi

Etzi hitzaldi bat izango da Ikaztegieta liburutegian, 17:00etatik aurrera, Kutxako Gizarte Ekintzak antolatuta, hain zuzen ere. Gaia honako hau izango da: *Elikadura eta elikagaiak. Arriskurik gabeko elikadurarako jarraibidea.* Programa, berriz hau izango da: janari osasuntsuak, kontserbatzaileak, koloragarriak, pestizidak, janari toxikotasunaren ondoriozko infekzioak, nola sukaldatu eta jan modu egokian, elikadura orekatua osasun-iturri...

LEABURU ▶

Ezker abertzalearen deialdia

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak bihar sinadura bilketa egiteko aukera zabaldu du bertako udaletxean goizez, 09:30etik 14:30era bitartean, hain zuzen. Etzi, berriz, 20:00etan Gazte Gelan *Hauteskundeak eta egoera politikoa* gai izango duen bilera egingo dute.



HITZA

Boteretsuak ziren honen atzetik ibiltzen zirenak, baina aukideak beraiek ziren salata-riak, anbizioagatik, inbidia-gatik, baratzengatik...

Eta XVII. mendearen aurretik zer?

Orduan ere bazen halako jendera, noski. Harrigarria da pen-tsaztea mende hartan nola si-

nes zezaketen, adibidez, hildako umeak hartu eta jan egiten zituztela. Horren atzean berriz ere kristautasuna eta boterea zeuden. 1500ean Durangon izan zen lehen sorginaren ehi-za, *Kattalin* liburuan, edo *Ilargiren alaba* gazteentzako liburuan, *Sorginak* liburuan... hor-taz hitz egiten dut. ◀

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

LUIS MARI MUJIKA ▶ IDAZLEA

«Erosoago sentitzen naiz zerbaitengan sinestuz»

Luis Mari Mujika lizartzarrak, bere ibilbidearen jarraipen diren poema eta toponimo liburuak argitaratu ditu azken egunotan Hiria argitaletxearekin

ASIER IMAZ

Luis Mari Mujikak (Lizartza, 1939) Hiria argitaletxearekin *Barne ibilerak II* poema liburua eta *Ipar Euskal Herriko toponimia II* argitaratu ditu azken egunotan. Donostian bizi den lizartzarra, poeta, idazlea, hizkuntzalaria, unibertsitateko irakaslea, eta batez ere, euskaltzalea da.

Lizartzan jaio eta bertan igaro zenuen gaztaroa?

Bai. Nire gurasoak ataundarrak ziren baina aita Gazteluko eta Orexako medikua zen. Lizartzan ere egoten zen eta horregatik jaio ginen gu bertan. 14 urtera arte bertan egon nintzen. Beti maitasunez gogoratzen dut Lizartza; jende asko zegoen, gaurkoaren bikoitza segur aski, eta beti harritu izan nau Lizartzan nola maite izan duen bere hizkuntza alboko herriekin konparatuta. Nafarroakoen aldean oso atxikia egon den aspalditik euren hizkuntzara, oso bizirik izan dute beti.


Frankismoaren borroka Lizartza eta Tolosan bizi izan zenuen?

Nik borroka bezala gure kultura eta hizkuntzaren aldetik bizitu izan dut. Euskararen etorkizunari oso atxikia egon naiz. Tolosara joan eta euskaldunak ginelako jasan genuen mespretxu hura iraingarri egiten zitzaidan urte haietan. 60-70. hamarkadetan, eskolarik eta ikastolarik gabe, dena debekatu zegoen eta gure pesimismoa latza zen gure hizkuntzaren inguruan. Gaur ere ez gara oso baikorrak baina orduko egoera oso txarra zen. Ondoren jo ta ke hasi nintzen ikasto-

len mugimenduan, 1969. urtean ikastolako elkartearen egon nintzen eta hurrengo urtean ikastolen zuzendari Donostian. Artikulugintzan ere gogor aritu nintzen, urtean 70 inguru idazten nituen, guztira 300 artikulua baina gehiago ditut argitaratuak egunkarietan. Gehienak erderaz, apropos idatziak gainera, erdaldun jendeari kontzientziak zabaltzako, asko gainera *letxe txarrean* idatziak gainera.

Erroman ere egon zinen teologia ikastera?

Bai, bertan ikasi nuen teologia. Gero Parisen egon nintzen filosofoi gauza batzuek osatzen, ondoren doktoretza egin nuen euskal filologian. Beti harritu nauen gai baten inguruan egin nuen; gure hizkuntzak duen eragina latino zaharretik edo hizkuntza erromanikoetatik: gaztelania, gaskoia, aragoiera... Eta eskerrak haiek hartu zituen; bestela zelta galdu zenean bezala, enbrioi hizkuntza traktets bilakatuko zen eta hiz-



IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

LIZARTZA

«Beti harritu izan nau Lizartzan bertakoek betidanik nola maite eta bizi izan duten euren hizkuntza»

kuntza elbarri gisa hilko. Hala ere, azalekoa den lexikoaz mintzo naiz eragina azaltzerakoan. Argi utzi behar da morfologia eta gramatika ez direla latinoa, anglosaxoia eta indoeuropeoa, zaharragoak baitira.

Frankismoan argitaratu zenuen euskaraz lehen liburua?

TOPONIMIA

«Ipar Euskal Herrian 90.000 toponimo ttipi bil daitezke, altxor hori jaso gabe aurkitzen da oraindik»

Italian egindako liburua da, han genuen udako etxean. Nik asko irakurtzen nituen italiar eta, batez ere, espainiar idazleak (Machado, Juan Ramon Jimenez...). Eta horien simbolismoa dago sartuta, Teillard de Chardinaren teologiarekin batera. Euskaraz idatzi behar nuel-

EUSKARA

«Hizkuntza aurrera eramatea lortzen badugu, Euskal Herria iritxiko da, ez bada horrela gezur bat da»

la, berriz, hasieratik nekien. Garairako oso iraultzailea izan zen.

'Ipar Euskal Herriko toponimia II' bilketa lana da?

Oraingo honetan, Urruñia, Sara eta Ezpeleta herrian aurkitu ditudan 6.000 toponimo ttipi bilatu ditut. Napoleonen garaiko

katastro zaharretik atera ditut, eta oraindik gehienak hartu gabe dauzkat. Ipar Euskal Herriko 90.000 toponimo ttipi bil daitezke oraindik, altxor hori jaso gabe dago. Hau gaur egun posible da garaian erregistradoreei grafia gaskoinaz edo funtsean frantsesez izena jartzeko eskatzen baitzitzaizkien, hemen soroekin eta egin genuen bezala. Izen horiek euskalki erroa zuten.

'Barne ibilerak II' izenburu existentsialista duen olerki liburua da?

Barne horrek nahiko intimismo ekartzen du bai. Orain dela bi urte antologia bat egiten hasi nintzen. Lehen aleak atera ziren eta hemen atera ditut azkenekoak. Nere estetikaren ildoetik jarraitu dut, simbolismoari aski atxikiak eta baita surrealismoari ere. Existentsialismoa ere ageri da, pertsonari loturikoak. Honetaz gain aipatzekoa da euskarak ematen dituen poesia lotua egiteko erraztasun ikaragarriak. Formalismoaren aldetik garrantzitsua da gure hizkuntzak hori lantzea, erraztasun asko ematen digu gure hizkuntzak neurtua eta azkeneko amaiera puntuarekin egiteko. Moldeak bai gaztelaniatik eta bai frantsesetik hartu ditut, ondoren euskarari lotzeko.

Zentzurik aurkitu al diozu?

Zeri?

Edozer gauzarik?

Zentzurik bilatu nahiko nuke. Argi dut ez nukeela nihilismoan sinestu nahi. Nahiago nuke sinisdun izatea ez izatea baino. Erosoago sentitzen naiz zerbaitengan sinestuz.

Zuretzat euskara eta politika bat al doaz?

Euskara ez da politika baina ezin da hori hain erraz mugatu; niretzat nahastuta daude. Borroka egiten baduzu, sinplea denak politizatzen ari zarela esango dizu. Nik uste dut euskara erabakien bidez joan behar duela eta orduan politikak ere sartu behar du. Hizkuntzaren egoera jarraitu eta berau aurrera eramatea lortzen badugu, Euskal Herria iritxiko da, bestela gezurra da, euskararik gabe ez bait dago Euskal Herri-rik.

hilberria ▶

Pepita Zabala Mugica

Andrea

HERENEGUN hil zen, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Anai-arrebak: Juan eta Feli Artano, Rufino eta Angela Maiz (†), Pilar eta Jose Galarraga (†), Angela eta Julian Montero; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte! GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko SEIETAN, SAN FRANCISCO parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbidea: Auzo bikia 6 beheara (Olarraiz auzoa).
oharra ▶ Gorpuzte beldu Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan dago, gaur asteartea gozako 10:00ak arte.

TOLOSAN, 2007ko apirilaren 17an



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ KROSA

291 lagunek hartu dute parte herri krosetako 29. edizioan

Beteranoen artean kopuruak gora egin du, 16 pertsonekin, baina umeen partaidetza aurten nabarmen gutxitu da



Haurrak, lasterketa hasieran. I. AZPILIKUETA



Lehenengo buelta eman ondoren. I. AZPILIKUETA



Plazan, helmugara iristen. I. AZPILIKUETA

NAIARA GARZIA

Herenegun egin zuten krosaren 29. edizioan 291 korrikalarik parte hartu dute, lehenengo urtean baino 29 partaide gutxiagok, hain zuzen. Lasterketak 10:15ean hasi ziren eta 12:30ean hamaiketako eman ondoren, 13:00etan sariak banatu zituzten.

Antolatzaileek azaldu duteenez, «jende dezentek parte hartu du. Gizonezkoetan lehenengo urtean baino 16 gehiagok parte hartu duten arren, umeetan partaidetza nabarmen jaitsi da». Beteranoetan, bai gizonezko bai emakumezkoetan, partaidetzak nabarmen egin du gora. Lehenengo urtean 55 aurkeztu ziren gizonezkoetan, eta aurten, 71. Emakumezkoetan, berriz, 2006ean 3 izan ziren, eta aurten 11. Gainontzeko mailetan, kadeteetan izan ezik, partaidetzak behera egin du.

Lehenengo lasterketa ofizialki 10:15ean hasi bazen ere (benjaminena), izan zen ordua baino lehen lasterka hasi zen umerik, izan ere, batzuk 10:05ean abiatu ziren. «Gu inskripzioak egiten ari ginela, zenbait ume ordua baino lehen, 10:05ean, bakarrik lasterka hasi zirela esan ziguten. Hau balio gabetza erabaki genuen eta azkenean denak aurreikusitako orduan atera ziren, 10:15ean», diote herri lasterketako antolatzaileek. Honetaz gain, epaileak juniorretan neskarik ez zela atera esan zuen hasiera batean. «Gaizki-ulertu bat izan zen, baina azkenean neska bat atera zela jakin genuen».

Gorabehera hauek alde batetara utzita, antolatzaileen ustez «ongi» joan da aurtengo kroseta eta eguraldiak ere lagundu zuen. Korrikalariez gain, jende ugari bildu zen jendea ikusi eta animatzera.

13:00ak aldera sari banaketarekin hasi ziren eta Julian Zabaleta, Aurrerako lehendakari ordea, Ruben Astibia erremontista eta Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea pilotariak aritu ziren sariak banatzen. Maila bakoitzean, urtero bezala lehenengo hirurak saritzeaz gain, maila bakoitzean lehenengo iritsi ziren leitzarrak ere saritu zituzten.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. Dagoeneko hasi dira internet bidez V. Hitza Argazki Lehiaketarako irudiak iristen. Webgunearen behealdean orain arte iritsi direnak ikus daitezke. Sar zaitetz, eta bide batez, anima zaitetz zure Aste Santu oporraldiko argazki bat bidaltzen.

SAILKAPENA ▶

BENJAMINAK Gizonezkoak.

1. Aritz Lizoain

2. Julen Gil

- Joanes Lizarregi

Emakumezkoak.

1. Garazi Otxandorena

2. Amaia Ezkurdia

- Ama Ezkurdia

ALEBINAK Gizonezkoak.

1. Beñat Mibelena

2. Fermin Estanga

- Markel Barriola

Emakumezkoak.

1. Ane Elzaudia

2. Andrea Lusarreta

- Neska leitzarrak ez du parte hartu maila honetan

INFANTILAK Gizonezkoak.

1. Beñat Salbarredi

2. Alexander Irurtzun

- Iñaki Zabaleta

Emakumezkoak.

1. Goizeder Azazeta

2. Sara Blanko

- Ane Inbausti

KADETEAK Gizonezkoak.

1. Jon Ander Mora

2. Urko Berdu

- Mutill leitzarrak ez du parte hartu maila honetan

Emakumezkoak.

1. Gabriela Zubieta

2. Argia Abrego

- Neska leitzarrak ez

JUNIORRAK Gizonezkoak.

1. Ibai Mendia

2. Mikel Yanzi

- Beñat Zabaleta

Emakumezkoak.

1. Sara Martinez

2. Ez dago

- Neska leitzarrak ez

SENIORRAK Gizonezkoak.

1. Antonio Etxeberria

2. Raul Amatriain

3. Gabriel Garin

- Iñigo Irazoki

Emakumezkoak.

1. Maitane Melero

2. Nerea Abrego

3. Marta Muñoz

9. Garbiñe Hernandez

BETERANOAK Gizonezkoak.

1. Oscar Primo

2. Ramon Otegi

3. David Markaia

- Aingeru Mendegia

Emakumezkoak.

1. Rosa Orofino

2. Elena Calvillo

- Miren Inbaurreondo



Jende asko bildu zen sari banaketara. I. AZPILIKUETA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Opel Frontera 2.2 DTI LIMITED, 2001. urtekoa. 80.000 km. 12.000 euro. 657 79 51 76.
Egurra. Sutarako pago egur lehorrta salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

LANA

Gidariak. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuta

daudenek dei dezatela ondorengo zenbakira: 943 44 48 66.

Garbiketa. Sukaidea, jangeletarako, eskolak. Deitu zenbaki honetara: 943 44 48 66.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Informazio gehiago 943 69 19 33 telefono zenbakian.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar dugu Amasako tabernan. 943 69 12 10.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. Festa batzordeak bilera antolatu du festak antolatzeko. 19:00etan izango da bilera. 20:00etan, herri kirolen gaia jorratuko dute.

Tolosa. Egokue-Aldude (Behe Nafarroa) irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkarte bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).

Tolosa. Udaberri dantza taldeko kideek hasi dituzte Bordon dantzarako entseguak. Ostegunetan izango dira, 20:30ean, Usabal kiroldegian.

Tolosa. Kazkabarraren 25. urteurrena da, hori dela eta, urte hauetan taldearekin harremana izan dutenentzat afora antolatu dute apirilaren 21erako. Txartelak eskuragai ikatza, Orbela eta Mescalen.

Villabona. Errozate-Urkulu (Behe Nafarroa) mendi irteera antolatu du Aizkardik iganderako. Izen-ematea, elkarte edo 943 694458 telefonoan (Joxan).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotza (errepikapena).
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Ura, inon eta nonahi

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Lehen argazkian ur gabeziak eragindako paisaia ederra ikus daitezke; bigarrenean, aldiz, ura nonahi ageri den parajea da ikusgai

ERGCHIGGAGA ▶

Amia Arozena (Tolosa).

Argazki eder hau ateratu zuen Amia Arozena tolosarrak Saharako basamortuan. «Furgonetan Marruecos-era joan gara Aste Santu honetan. Lehenengo iparraldetik ibili gara eta gero Sahara basamorturaino iritsi ere. Argazkia, ErgChiggaga izeneko tokian (erg duna esan nahi du) aterata dago. Honaino 4x4 kotxe horietako batekin (edo gameluz) iritsi daitezke bakarrik», azaldu digu berak.



VENEZIA ▶

Unai Barriola (Tolosa).

Herialde zoragarri bat bisitatu du Unai Barriolak Aste Santuan. Argazkia bidaltzearekin batera hauxe azaldu digu: «Aste santuan italiara joan gara eta Venezian pasa genituen pare bat egun. Argazki tipikoa da Rialto zubitik ateratako hau baina iluntzean aterata politta geratu da eta bidaltzea pentsatu det. Argazkian Venezian ohikoa den guztia ikusten da: kanal handia, barkuak, gondolak, jatetxeak...».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Janire Errazkin (Ibarra).
 Zorionak printzesa eta 7 muxu potolo denon partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzaun Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza argazki lehiaketa






bidali oporretako argazkiak!

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki Lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

ONINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 4 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Santanderren edo Errioxan




Bidaia Agentzia bidaide

Erriobeia, 6-behea • 20150 Villabona
 Tel.: 943 692 693
 bidaide@gruposercm.com

ZOKETA APARTAK



PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILLE guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

